

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak. 2023ko ekaina

Sarrerak % 8,3 igo dira, eta ostatu-gauak % 6,5, Euskal AEko hotel-establezimenduetan, 2023ko ekainean

Atzerritar jatorriko sarrerak estatutik etorritakoak baino gehiago dira, % 20,1 gehitu baitira, eta guztizkoaren % 52,9 dira

2023ko ekainean, Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak % 8,3 gehitu ziren, eta ostatu-gauak % 6,5, urtetik urterako kopuruak kontuan hartuz, Eustaten datuen arabera. Erregistratutako 334.897 sarrerek guztira 652.205 ostatu-gau ekarri dituzte.

Sarreraren % 52,9 eta ostatu-gauen % 54,3 atzerritar jatorriko pertsonenak izan dira. Sarrerak % 20,1 igo dira, eta ostatu-gauak % 14,5; hala bada, estatutik datozenak baino gehiago dira.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gauraldiak eta batez besteko egonaldia. Ekaina 2023

	Sarrerak		Gauraldiak		Batez-besteko egonaldia	
	2023/06	m/m-12 (%)	2023/06	m/m-12 (%)	2023/06	2022/06
EUSKAL AE	334.897	8,3	652.205	6,5	1,95	1,98
Estatukoak	157.595	-2,5	298.027	-1,7	1,89	1,88
Atzerritarak	177.302	20,1	354.178	14,5	2,00	2,10
Araba/Álava	44.048	12,5	84.836	13,7	1,93	1,91
Estatukoak	29.249	13,0	56.415	12,4	1,93	1,94
Atzerritarak	14.799	11,4	28.421	16,2	1,92	1,84
Vitoria-Gasteiz	32.661	15,7	66.807	20,0	2,05	1,97
Bizkaia	151.169	6,7	285.257	4,1	1,89	1,93
Estatukoak	72.193	-8,5	131.369	-10,0	1,82	1,85
Atzerritarak	78.976	25,7	153.888	20,3	1,95	2,04
Bilbao	99.041	5,0	192.497	4,9	1,94	1,95
Gipuzkoa	139.680	8,9	282.112	6,9	2,02	2,06
Estatukoak	56.153	-1,1	110.243	2,9	1,96	1,89
Atzerritarak	83.527	16,8	171.869	9,5	2,06	2,19
Donostia / San Sebastian	87.879	12,8	183.961	6,7	2,09	2,21

M/m12 Behatutako azken hilabetea izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2023ko Uztailaren 20a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Araban, 44.048 sarrera erregistratu dira, eta 84.836 ostatu-gau, iazko ekainean baino % 12,5 eta % 13,7 gehiago, hurrenez hurren. Bizkaian, aldiz, sarrerak % 6,7 gehitu dira, eta ostatu-gauak % 4,1. Guztira 151.169 sarrera eta 285.257 ostatu-gau izan dira. Gipuzkoan, 139.680 sarrera erregistratu dira 2023ko ekainean, 2022ko ekainean baino % 8,9 gehiago, eta 282.112 ostatu-gau, iazko hil berean baino % 6,9 gehiago.

Hiriburuen arabera, sarrera kopurua % 15,7 igo da Gasteizen, % 5,0 Bilbon eta % 12,8 Donostian. Era berean, iazko ekainarekin alderatuta, ostatu-gauak % 20,0 gehitu dira Gasteizen, % 4,9 Bilbon eta % 6,7 Donostian.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako batez besteko egonaldia, 2023ko ekainean, 1,95 egunekoa izan da, 2022ko hil berean baino gutxiago, iaz 1,98 egunekoa izan baitzen.

Batez besteko egonaldia bidaiariak gaua igarotzen duten establezimenduetan batez beste ematen duten egun-kopuruari dagokio, eta ez Euskal AEn egiten duten egonaldi osoari.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. Ekaina 2023

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazen arabera		gelaka		ADR (eurotan)		RevPAR (eurotan)	
	2023/06	p.p. *	2023/06	p.p. *	2023/06	m/m-12 (%)	2023/06	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	61,9	1,3	75,0	2,2	121,75	14,7	91,35	18,2
Araba/Álava	55,6	2,3	70,1	2,0	89,72	9,0	62,93	12,3
Vitoria-Gasteiz	56,9	4,0	74,4	3,9	72,48	8,6	53,91	14,6
Bizkaia	59,0	0,7	74,1	2,3	113,81	16,6	84,30	20,3
Bilbao	63,9	1,5	80,7	3,8	129,85	17,1	104,80	22,9
Gipuzkoa	67,7	1,6	77,9	2,2	140,58	14,4	109,43	17,7
Donostia / San Sebastian	74,1	0,2	83,6	2,1	177,25	13,2	148,18	16,0

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2023ko Uztailaren 20a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AEko betetze-maila % 61,9 izan da ekainean, plazaka neurtuta, eta % 75,0koa, gelaka neurtuta. 2022ko ekainarekin alderatuta, igoerak ehuneko 1,3 eta 2,2 puntu izan dira, hurrenez hurren.

2023ko ekainean, Euskal AEn, 121,75 euro izan da eguneko batez besteko tarifa edo ADRa ("logela bakarrik" erregimenean gela bikoitz bainugeladunari aplikatua), eta horrek esan nahi du % 14,7ko igoera izan dela aurreko urteko ekainaren aldean. ADRa 140,58 euro izan da Gipuzkoan, 113,81 euro Bizkaian eta 89,72 euro Araban. Hiriburuen arabera, aldeak handiagoak izan dira: ADRa 177,25 euro izan da Donostian, 129,85 euro Bilbon eta 72,48 euro Gasteizen.

Euskal AEko hotel-establezimenduetan, RevPar edo gela eskuragarri bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak 91,35 eurokoak izan dira 2023ko ekainean, iazko hil berean lortutakoak baino % 18,2 handiagoak.

Azkena Rock Festival

Arabako hotel-establezimenduetako sarrerak, ostatu-gauak eta okupazio-mailak, jatorriaren eta eremu geografikoaren arabera. Ekaina 2023 (*)

	Sarrerak					Gaualdiak					Okupazio-mailak					
											plazen arabera			gelaka		
	p	%	p-1	%	p/p-1	p	%	p-1	%	p/p-1	p	p-1	p/p-1	p	p-1	p/p-1
ARABA/ALAVA	5.052	13,9	4.931	13,3	2,5	11.074	15,4	10.752	15,4	3,0	71,9	74,8	-3,9	84,2	88,0	-4,4
Estatukoak	3.994	79,1	3.862	78,3	3,4	8.684	78,4	8.483	78,9	2,4	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.058	20,9	1.069	21,7	-1,0	2.390	21,6	2.269	21,1	5,3	-	-	-	-	-	-
Vitoria-Gasteiz	3.595	71,2	3.413	69,2	5,3	8.832	79,8	8.122	75,5	8,7	74,6	75,3	-1,0	89,0	91,6	-2,8
Errioxa Arabarra	854	16,9	938	19,0	-9,0	1.385	12,5	1.548	14,4	-10,5	69,4	78,2	-11,2	72,3	80,0	-9,6
Arabako gainerako eskualdeak	603	11,9	580	11,8	4,0	857	7,7	1.082	10,1	-20,8	55,0	67,6	-18,7	65,9	76,2	-13,5

p/p-1 Azken aldian izandako urte arteko aldaguntza-tasa (p), aurreko urteko aldi berarekin alderatuta (p-1)

(*)Kontsultatutako datak: 2023/06/15etik 2023/06/17ra eta 2022/06/16tik 2022/06/18ra (Azkena Rock Festival)

Data 2023ko Uztailaren 20a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

ARFren (Azkena Rock Festival) azken edizioa dela eta, zeina Gasteizen egin zen 2023ko ekainaren 15etik 17ra, hotel-establezimenduen sarrerak eta ostatu-gauak % 2,5 eta % 3,0 igo ziren Arabako lurralde osoan. Hiriburuan, ekitaldiaren egoitzan, egun horietan, 2022ko ARFren egun berberekin alderatuta, sarrerak % 5,3 igo ziren, eta ostatu-gauak % 8,7. Plazak zein gelak kontuan hartuz, betetze-mailak 2022ko ediziokoak baino txikixeagoak izan arren, % 71,9 eta % 84,2 izan ziren, hurrenez hurren.

Informazio-oharra

Hoteletako ETHaren erantzun-tasa % **91,3** izan da 2023ko ekainean. Eustatek eskerrak eman nahi dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Euskal AEko turismoko datu-esploratzailea. Hotel-establezimenduak

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62